

Aretxagazeta

ETA GAINERA...

Ze barri?

ASTEKO GAIA

**Eskoriatzako Udal
Biblioteka /08**

HEZKUNTZA

**Helduen Heziketa
Iraunkorra /09**

LEINTZ GATZAGA

**II. Mendi Bizikleta
zeharkaldia /10**



bat gehio

**ARETXABALETAR
BAT GEHIO MUSIKAN**

JULEN COBOS TALDEKO ABESLARIA DA

GUARDIAKOFARMAZIA

ZAPATUA, 2
ITURRALDE. Mitarte 18..... 943 79 27 22

DOMEKA, 3
ITURRALDE. Mitarte 18..... 943 79 27 22

TELEFONO JAKINGARRIAK

OROKORRAK

Almen	943 71 49 07
ARETXAGAZETA	943 79 86 21
Faxa	943 77 18 54
Basotxo	943 77 09 81
Euskaltegia	943 79 21 68
Gizarte laguntzailea	943 71 18 62
Hezibide elkarteak	934 79 31 32
Industrialdea	943 79 62 80
Institutua	943 79 79 00
Kirol etxea	943 71 26 28
Kultura etxea	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI	943 79 57 40
Liburutegia	943 71 18 62
Loramendi EE	943 77 09 70
Ludoteka	943 79 05 81
Mankomunitatea	943 79 30 90
Murruxiko ME	943 79 93 74
Musika Eskola	943 79 36 50
Osasun etxea	943 79 74 58
Otalora	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa)	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola	943 77 03 77
Postetxea	943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
Saretxo	943 71 26 56
Taxi geltokia	943 79 22 33
Udal Bulegoak	943 71 18 62
Udaltzaingoa	943 71 18 63
Urats Gain	943 79 99 11

UDALTAINGOA
Arrasate

LARRIALDIK
SOS Deliak

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA
Domeketan: 11:00, 12:00
Zapatuetan: 19:30
Lanegunetan: 19:30

SANTA RITA
Domeketan: 09:00
Zapatuetan: 18:30
Lanegunetan: 08:00

BASERRI AUZOETAN: LARRIÑO
Domeketan: 12:30

MENDIOLA
Domeketan: 12:00 (Otoitzaldia bakarrik)

GELLAO
Domeketan: 11:30

OHARRAK

TAILA IKASTAROA
Okila taldeak hasiera mailako taila ikastaroa antolatu du. Urriaren 4an hasiko da, eta eskolak 18:00etatik 20:00etara izango dira. Izenematea udaletxean, kultur etxean edo Okila taldearen egoitzan egin behar da, Murubide kalean, 5. zenbakian.

YOGA, MEDITAZIO ETA BIOENERGETIKA IKASTAROK
Sadhana zentroak hainbat ikastaro antolatu du: yoga hastapen ikastaroa, meditazioaren inguruko eta bioenergetikaren gainekoa. Urriaren 18an bukatuko da izena emateko epea, eta ikastaroak abenduan amaituko dira. Informazio gehiago 616 96 57 95 zenbakian.

INTERNET IKASTAROA
Aretxabaletako Kzgunean oinarritako Internet ikastaroa antolatu dute, urriaren 4tik 18ra. Eskolak 16:00etatik 18:00etara bitartean izango dira.

ESKULAN IKASTAROK
Udalak eskulan eta bainika ikastaroak antolatu ditu. Ordutegiari dagokionez, aukera zabala dago. Informazio gehiago kultura etxean, 09:00etatik 13:00etara. Rosa Aguila, Mila Akixu eta Piedad Roman izango dira irakasleak.

LORAMENDIRENAGENDA


MATIKUAKO AFARIA
Joan den zapatuan zozketan eman zuten afaria Gotzone Guemesi egokitu zaio. Beste lagun batekin Matikura joango da afaltzera. Loramendiko bazkideen artean egin zen zozketa.

TRIKIMAKO IKASTAROA
Trikimako ikastaroa antolatzeko asmoa dagoela eta, interesatuek Loramendin egin behar dute izenematea lehenbailehen.

ORAINDELA 10URTEARETXABALETAN

Baldintzak bete ez, eta Zaraia zinema itxi egin zuten

Suteen aurkako baldintzak ez zituelako betetzen, Udalak itxi egin zuen Zaraia zinema. Legeak baldintza bereziak exijitzen zituen: emergentziarako ateak eta sute detektagailuak egotea, besteak beste. Era horretan, filmak ikusteko aukera ere bertan behera geratu zen.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Zirika"

Zirikatzen.
—Beti elkarri zirika dabitz.



LIBURUTEGIKOTXOKOA

Liburu berrien zerrenda

- 8 URTETIK AURRERA**
- 'Sosuren deia' / Meshack Asare
 - 'Franti' / Karlos Linazasoro
 - 'Lauterdi pirataren altxorra' / Aitzpea Goenaga
 - 'Gaur egun handia da' / Imanol Azkue Ibarbia
 - 'Gaspar eta zuhaitzak' / Patxi Zubizarreta
 - 'Dindirri' / Anjel Lertxundi
 - 'Txakurra daukagu etxean: eta zer?' / Fina Casalderrey
 - 'Max bazterrak nahasten' / Laida Martinez Navarro
 - 'Markos txikiaren problema handia' / Gilles Gauthier
 - 'Bruneiko kanarioa' / Daniel Nesquens
 - 'Heroia izan nahi zuen mutikoa' / Sylvain Trudel
 - 'Oihan txikiko mamuak' / Jose Mari Satrustegi
 - 'Argisentiko ipuinak' / Jose Mari Satrustegi
 - 'Zuriñek beltza izan nahi du' / Seve Calleja

JOSEBA LÓPEZ DE ARMENTIA

Adi!



**EKAINAREN 7tik AURRERA
Zorion agurrak
ASTELEHENEKO
GOIENKARIAN!**

Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Gainera...

**Zorion agurrak,
SMS bidez!**

Senitarteko, lagun, ezagun edo gustuko duzun neska/mutila bere urtebetetzean zoriondu nahi baduzu, **Asteleheneko Goienkaria-k** beste aukera bat emango dizu: SMSa bidaltzea.



EGUZKIGRAF
inprimategia

Goizeko 7:30etatik 12:30arte
arratsaldeko ordubietatik 5:15arte

25. urteurren

1979-2004

ATREBENTZIAEZPADA/ Zer egingo zeuke kirol etxe aurrien dauen zelaixen?



PILI DOMINGUEZ
Langilie




SANTI BALANTZATEGI
Langilie




BEGOÑA SOLA
Etxekoandrie



PILAR VAZQUEZ
Etxekoandrie



ADOLFO RUIZ DE AUSTRI
Langilie



JUAN JOSE BERASALUZE
Langilie

Pistina bat umeendako. Uste dot udarako ondo etorriko zala, baina ahal bada ezta egingo neuke, horrela neguan ere erabiltzeko aukera izengo geuke. Behintzat zerbait egin behar da!

Arbolak landatu eta parke moduen itxi. Nire ustez toki horretan keizpe batzuk falta die. Zelaixa ondo dau dauen moduen, baina gauza gehixau ipini bier die, arbolak, esaterako.

Nik kirol etxia botako neuke eta barrixa egin. Ez neuke konponketarik egingo, uste dot herri honek bier duela kirol etxe dexente bat. Eta gero posible bada, kanpuen be igerilekua egin.

Ez dakitx, iguel umiendako pistinak ez zien gaizki etorriko. Neu be joango nintzake pistinara. Udan bero itxen dauenien Landara edo Debara faten gare, baina herrixen egonez gero...

Ez daukot ideiarik bez, ez dot inoiz horren gainien pentsau. Pistina bat ondo egongo litzake, baina kanpoko pistinie mantentzia garestixa dala entzun dot. Hala ere ez legoke gaizki.

Jende danak eskaketan dauena, pistinie. Udarako bier dala uste dot. Egixa esan udan ezta askotan eguraldi onik egiten, baina bero egiten dauenerako zerbaitx bier dou.

TXALOAKETATXISTUAK



TXALOAK NAGUSIEN DANTZA TALDEA

Joan den domekan egin zuten dantzan nagusien taldeko partaideek lehenengo aldiz. Jende aurrean dantzatu zuten lehenengo aldia izan arren, ondo moldatu ziren. Eguenero izaten dituzte entseguak taldeko partaideek, eta gutxi direnez, hala nahi dutenei taldean parte hartzeko dei egin nahi diete. Egubakoitzetan ere izaten da beste talde bat. / M.A

ETABARRUAN...

ASTEAN BEHIN /04

Julen Cobos eta Bat Gehio

Julen Cobos aretxabaletarra Bat Gehio taldeko abeslaria da, eta disko berria kaleratu dute.

ASTEAN BEHIN /05

Liburutegian txartel berriak

Hemendik aurrera txartel berriak egingo dituzte Udal Liburutegian, sistema berri bat dela eta.

KIROLAK /06

Andoni Arenaza 4x4 probetan

Andoni Arenaza 4x4ko probetan ari da parte hartzen, eta duela gutxi lehenengo sailkatu zen Gernikan.

ASTEKODATUA

14

EMAKUME IZANGO DIRA AUTOESTIMA TAILERREAN

Udalak antolatutako emakumeendako autoestima tailerrerako, 14 lagunek egin du izenematea. Urriaren 14an hasiko da, eta abenduan bukatu. Pepa Bajo psikologoak emango ditu eskolak.

BESTEKEESANA


“

Espero genuen lan duin bat egitea, baina diskoa grabatzerakoan beste musikari batzuek ere parte

hartu zuten. Horrela, hasieran kolaborazio txiki bat izan behar zena indartuz joan zen, eta gehiago inplikatu eta buru belarri sartu ziren proiektuan. Hori zelan ez, igarri egiten da diskoan, eta gustura geratu gara emaitzarekin. Orain hasi da jendea diskoa entzuten, duela astebete aurkeztu genuen eta Euskal Herrian. Kataluinan, berriaz, hemendik bi astera aurkeztuko dugu disko berria. Disko bat grabatzea lan mekanikoa izan daiteke, horregatik zuzeneko emanaldiak desberdinak direla uste dut. Nire iritziz, Bat Gehio zuzeneko talde bat da.

JULEN COBOS
Arrasate Irratia/04-09-28

HERRITARRENBERBAK/ Edorta Mendieta



Argiak eta itzalak

Bien, bien, bien... joan zaizkigu aurtengo San Migelak. Jai polita. Oso folklorikoa nolabait, baina gogoz itxaroten dugun jai eta gustura bizi duguna. Aurten ere ondo izan da, oro har. Jende ugari egunez, jende ugari gabez... denok pozik, beraz. Hala ere, izan da itzalik ere. Esaterako, zergatik ez da aurten omenaldirik egin? Ez al zegoen aurten errekonozimendu hori merezi zuenik? Ala aurreikuspen falta besterik ez da izan?

Gauza ona izaten da herriaren alde zerbait egin dutenei edo herriari pertsonalitatea ematen diotenei errekonozimendua egitea. Azken urteotan beti egin izan dugu, San Migeletan, zapatuan, herriko plazan. Beraz, esan genezake San Migel jaietako ohituretariko bat zela azoka ekologikoa, artisau feria, gaitariak, taloak, bertsolariak edo eta baserriar jantziak bezalakoa. Eta beste gainontzeko ohiturak bezala,

galtzea ez da gauza ona izaten, baldin eta ohitura horiek onak badira.

Ez naiz ni izango errekonozimendua nork merezi duen edo ez esango duena. Ez da hori nire asmoa. Esan nahi dudana bakarra da omenaldiek edo errekonozimendu publikoek balio ikaragarri handia dutela, muxu truke zerbait positiboa egin dutenei bidezko ordaina delako. Gaur egun ez da erraza izaten horrelako konpromisorik hartzeko prest dagoen jende asko aurkitzea.

Horregatik gorde beharreko jokabidea da errekonozimendua publikoena, konpromisoa hartu dutenei jarraitzeko indarra ematen dielako.

Gure gizartean ez da ohikoa izaten horrelako errekonozimendua egitea, baino behin egiten hasiz gero ez dira galdu behar. Ea ba, aurtengo lapsus bat besterik ez den izan eta datozen San Migeletan norbaiti gure eskerrona erakusteko aukera daukagun.

“Zergatik ez da omenaldirik egin San Migeletan? Ez zegoen errekonozimendua merezi zuenik?”

Aretxagazeta

Durana 11
20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Maria Agirre

ERREDAKZIOA
Maria Agirre

MAKETAZIOA
Alex Azkarate
Imanol Soriano

PUBLIZITATEA
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
SS-378-94

ISSN
1134-2609

TIRADA
2.700 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala



BESTEAKBESTE

M. J. Aretxaga

Maritxu
atxabaltan

Gaur makina bat maritxuzale ikusiko ditugu atxabaltan. Mondrauko jatetxietan denandako tokirik ez, eta batzuk atxabaltara etorriko die bazkaldu edo afaltzera. Atxabaltan indarra hartu, eta gero juergan Modrauera. Horregatik, jentia elegante antzera ikusten badozue, kontuen izen alboko herrikuek gaur galaz janzen diela. Untzilla auzuen be jaixak. Aramaioa auzue izen arren, makina bat atxabaltar ibiliko da Untzillako jaixetan. Eta denen goguen, **Alberto Etxebarria**. Untzillako soziedadeko bazkide zan **Alberto**, eta gaur egingo daueien bertso afairako izena emunda eukon. Bera ei zan zerrendan lehenengua. Gaur bere hutsunie somauko daue.

Jaixekin jarraituz, maritxu zale ez zarienok, kontuen izen Oñatin be jaixetan dazela. Eta domekan Kilometroak Zarautzen. Bertan joko dau **Julen Cobos** atxabaltarraren taldiek, **Bat Gehiok**. Astien email bat jaso dot **Euskadi Gazte**ra deiketako eskatuz. Zer eta **Bat Gehio** taldie zerrendan dauenez, telefonoz deitxu eta haren aldeko botue emuteko eskatu dozt emaiaren jabiek. Beraz, atxabaltarrak lantxo bat daukou aste bukaera honetan.

ELKARRIZKETA

JULEN COBOS/BAT GEHIO TALDEKO ABESLARIA

“Diasporatik egindako diskoa denez, ‘Diaspor han’ izena jarri diogu diskoari”

MARIA AGIRRE

Diskoa kaleratu berri du Bat Gehio taldeak. Bartzelonan jaiotako taldea bada ere, badira musikari euskaldunak: Julen Cobos aretxabaletarra, besteak beste. *Diaspor han* izena du taldearen lehenengo diskoak.

Diaspor han izena zergatik, diasporatik egindakoa delako?

Bai, hitz jokoa egin nahi izan dugu. Taldekide gehienak ez gara Bartzelonakoak, eta hori islatuz hitz joko bat egin dugu.

Bat Gehio taldeko abeslaria zara, eta kantuen hitzak ere zureak dira.

Bai, hitzak neuk idazten ditut. Denetarik gaiak jorratzen ditut: maitasuna, egoera sozio-politiko... Gai pertsonalak ere badira. Esate baterako, domeka goiz batean jaikitzen zara, ajea duzu eta zerua lainotuta dago. Horrek zer pentsatua eman, eta horren gainean idazten dut.

Aurrez maketa bat kaleratu zenuten, eta orain diskoa.

Bai, Gaztelupeko Hotsak diskoetxeak kaleratu du diskoa. Maketa eta diskoa izpirituz nahiko antzekoak dira. Melodiak eta hitzak antzerakoak, baina muskalki diskoa askoz ere landuagoa dago. Beste partaide batzuk sartu dira taldean, eta horren eragina asko igarri dugu. Grabazioan ere hamabi bat musikariek esku hartu zuen. Alde horretatik kolore asko ditu, maketa sinpleagoa zen.

Domekan aurkeztuko duzue diskoa, Zarautzen.

Bai, Kilometroetan joko dugu. Hori izangó da lehenengo kontzertua.

Eta herrian noiz?

Ikusi egin behar noiz egiten dugun diskoaren aurkezpena Aretxabaletan. Deitzen digutenean izango da. Egia esan gu Euskal



Julen Cobos abeslaria eta David Carreras bateria jolea.

AITOR LIZARRALDE

“Diskoa landuagoa da maketarekin konparatuz gero, baina oinarrian antzerakoak dira”

Herrira joatea ez da hain erraza. Furgoneta bat alokatu, pare bat egunerako joan... Gutxieneko gastu batzuk ditugu.

Bartzelonan zein harrera du taldeak?

Ona. Nahiz eta euskaraz abesten dugun, Bartzelonan ohikoa da edozein hizkuntzatan musika egi-

“Erabaki nuen lotsak alde batera utzi, eta ahalik eta ondoen egitea hain gustuko dudana”

tea. Gu ere ohituta gaude ingelesez kantatzen duten taldeak entzuten, nahiz eta hitzak ulertu ez.

Zu zeu zer moduz taula gainean?

Orain hobeto, nahiz eta oraindik urduri jartzen naizen. Erabaki nuen lotsak alde batera utzi, eta

“Ikusi egin behar noiz egiten dugun diskoaren aurkezpena Aretxabaletan”

ahalik eta ondoen egitea hain gustuko dudana: abestea.

Bartzelonan zer moduz?

Duela sei urte etorri nintzen eta dagoeneko neure tokia aurkitu dut. Kultur etxe batean egiten dut lan, gazteendako ikastaroak antolatzen. Musikaz bakarrik bizitzetik ez dagoenez, lan egin behar!

Angelines
AUTOZERBITZUA

Frutan eta txarkuterian espezialitatea

Mitarte 16 • 943 79 61 42
ARETXABALETA

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Jou Díaz
Harakina

Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

ARQUERO
CONSTRULAN S.L.

ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK

Tel.: 943 79 01 51
Basabe poligonoa 4, EQ-11 • ARETXABALETA

Zuzendaria:
Lyonel Arquero

Dekorazioa:
Soraya Arquero

KULTURA/ Internet bidez beste liburutegi batzuetan zein liburu duten jakin dezakegu

Txartel berria egingo zaie liburutegiko bazkideei

MARIA AGIRRE

Aretxabaletako liburutegia ere, Internet bidez hainbat liburutegirekin harremanetan izango da aurrerantzean. Era horretan, beste liburutegi batzuetan behar dugun liburuak ote dagoen kontsultatu ahal izango dugu. Hori dela eta berrituko dira txartelak.


Gaur egun, 1.200 bazkide ditu herriko liburutegiak, eta horiek guztiek txartel berria izango dute aurrerantzean. Liburutegira gerturatu ahala egingo zaie txartel berria.

ZERTARAKO TXARTEL BERRIA?

Bailarako beste liburutegi batzuekin batera, Aretxabaletako ere Eusko Jaurlaritzak antolatutako duen sarean sartu berri da. Internet bidez harremanetan jarri dira, oraingoz 25 liburutegi inguru. Era horretan, hemendik aurrera askoz ere handiagoa izango da aukera, beste liburutegi batzuetako liburuak ere eskura izango baitugu. Esate baterako, behar dugun liburuak herriko liburutegian ez badago, baina bai Arrasatekoan, bertara joan eta hura hartzeko aukera izango dugu. Txartel berria ez da ezer ordaindu behar, baina Espainiako nor-tasun agiria beharko da berria egiterako unean. Txartel berriarekin, zenbaki bat emango digute, eta horrekin posible izango da etxetik bertatik ere kontsultak egitea. Horretarako euskadi.net web gunean sartu behar da. Eta beste onurarik ere bai: liburuen mailegua luzatzeko aukera izango da internet bidez.

LIBURUTEGIA INDARTU

Sistema berri honekin, askoz ere liburu gehiago izango ditugu aukeran, eta irakur zaletasuna indartuko dela espero dute ekimen honen bultzatzaileek. Hemendik aurrera, gainera, herriko liburutegian hiru liburu eta beste hiru materiale hartzeko aukera izango da. Eta guztira, sarean zortzi liburu eta bestelako beste zortzi. Gainontzean, herrian asko edo gutxi irakurtzen



Liburutegira joan ahala txartel berria egingo diete bazkideei.

MARIA AGIRRE

*Txartel berriak
dohainik egingo
dira eta bakoitzari
zenbaki bat emango
zaio*

ote den galdetzerakoan, Joseba Lopez de Armentia, liburutegiko arduradunak esan digu, beste herri batzuekin konparatuta Aretxabaleta ez dela motz geratzen. "Ez asko, baina nahikoa irakurtzen da herrian. Helduek irakurtzen dute gehien". Modak ere izaten dira liburutegietan, eta hala ari da gertatzen herrikoan ere "Codigo Da Vinci" liburuarekin. Dan Brown idazlearen liburuak

*Azkenaldian
'Codigo Da Vinci'
liburuak ari da
arrakasta handia
izaten*

sekulako arrakasta ari da izaten. Ale bi dituzte, baina azkenaldian bazkideen esku izaten dira. Euskarazkoetan, berriz, Bernardo Atxagaren "Soinujolearen semea" ari da arrakasta handiena izaten. Horretaz gain, DVD berriak ere erosi dituzte. Gaztetxoendako, "Nemoren bila" edo helduendako "La pelota vasca" dira horietako batzuk. Guztiak ere udan herriko plazan eskainitakoak.

LABUR

Azkenaldian arratoiak ugaritu egin direla eta, Udalak neurri bereziak hartuko ditu

Azken hilabeteetan herrian arratoi ugari ikusi dituztela eta, Udalak neurri bereziak hartzea erabaki du. Hainbat txokotan arratoiak hiltzeko pozoia botatzen badute ere, arratoiak hiltzeaz arduratzen diren etxeei aurrekontua eskatu die Udalak. Aurrekontuak jasotakoan erabakiko dute zein enpresari adjudikatu lan hori. Obretan eta erreka ertzetan ibiltzen dira arratoiak bereziki; era horretan, Loramendi inguruan ugaritu egin dira azkenaldian. Erdialdea ere ez da salbu; joan den astelehenean Ilargi plaza inguruan bota zuten pozoia. Urteko lehenengo hilabeteetan pozoia bota ez, eta ordutik hona hainbat herritarrek udaletxera deitu dute, batean eta bestean arratoiak ikusi dituztela esanez.

Untzilla auzoan jaiak ospatuko dituzte aste bukaera honetan

Untzilla auzoa jaietan murgilduko da datozen egunetan. Gaur gauean bertso afaria izango da auzoko elkarteetan. Bihar goizean, trikitilariak alaituko dute giroa, eta arratsaldean haur jolasak eta txokolatada izango dira. Gauean, bestalde, bolo txapelketa eta Lontxo taldearekin dantzaldia izango dira. Domekan bukatuko dira jaiak, eguerdiko meza eta dantzaldiarekin.



ASKAL PRESOAK

San Migeletako bazkariak Senideen iritzia

Senideak elkarteak prentsaurrekoa eman zuen astelehenean, San Migeletako herri bazkarian parte hartu zutenei eskerrak eman, eta Udalaren jarrera salatzen. Kepa Urrea presoaren emazteak eta alabak eskaini zuten prentsaurrekoa, eta esan zuten ez zitzaizela ondo iruditu Udalak ia dirulaguntzarik ez ematea. Era berean, Askatasuna taldearen lana goraiatu zuten, azken sei urteetan bazkaria antolatzearekin arduratu eta bildutako dirua preso eta senideentzat bideratu dutelako.

Bien bitartean, *Goienkarira* bidalitako gutunean, Udalak dio bazkarirako dirulaguntza ematea erabaki zuela irailaren 21ean. Erabakia berandu hartu izanaren errua Udalak bere gain hartzen duela, baina bazkaria ikuspegi zabalgotik antolatu behar dela dio.

Martin
erloju-denda

Bere bezeroen
zerbitzura

Mitarte 16
Tel.: 943 79 01 72
ARETXABALETA

GARBITU S. KOOP

*Garbiketa
orokorrak*

Errekabarren 3- Behea
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 01 28

PIENSO
SUNZUE S.A.

FELIX PAGALDAY

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte 7 behea
ARETXABALETA
Tel. 943 77 00 33/79 42 56

URKULU

FERRETERIA • BRIKOLAJEA
INDUSTRIA HORNIDURAK

Torrebaso pasealekua 16/ ESKORIATZA
Tel.: 943 71 30 30/ Faxe: 943 71 25 55
urkulu@cadena88.com

ANDONI ARENAZA/4X4 PROBETAN GIDARIA

"Gurako nuke herrian 4x4ko probaren bat egitea"

MARIA AGIRRE

Andonirena benetako zaletasuna da. Izan ere, Izugarri gustatzen zaio automobilien mundua, ez bakarrik arlo mekanikoa, 4x4 lasterketetan esku hartzen du. Duela gutxi Gernikan egindako proban lehenengo sailkatu zen.

Nondik dator kizu zaletasuna?

Motor alorra beti gustatu izan zait. Eta horrela, dagoeneko 4x4 bat baino gehiago erosi ditut. Nik neuk egokitzen ditut.

Ez dirudi merkea.

Ez da merkea, baina gustatzen bazaizu... Dirua azkenean joan egiten da, eta orduak ere asko. Nork bere poltsikotik ordaindu behar duenez, zenbat gasta dezakezun jakin behar duzu, bestela...

Garestia, eta arriskutsua.

Ez du zertan arriskutsua izan. Kontzentrazio handiz gidatzen bada, ez dago arriskurik. Baina izan dut bai istripurik. Eskoriatzan, San Pedrotan, irauli eta bizkarrean min hartu nuen. Oraindik errehabilitazioan ari naiz.

Laguntzailerik ere izaten duzu.

Koadrilako lagun bat, Ugutz Muñoa, izaten da laguntzailea. Batzuetan auto barruan joaten da eta beste batzuetan kanpotik gidatzen nau. Jakina, laguntza morala ere ematen dit.

Gernikako proba zelan joan zen.

Guztira 28 bat lagunek esku



M.A.

hartu genuen, eta lehenengo sailkatu ginen gu. Ez genuen espero, baina... Nire helburu bakarra autoa ez apurtzea zen, laster ehi-

zarako behar dut-eta.

Hurrengo proba non?

Ez dakit, beharbada Durangoko jaietan antolatuko dute. Hala bada, bertara joateko gertu nago. Hala ere, gurako nuke Aretxabaletan halako probaren bat egitea. Nire ustez zaletasuna bada, kirol ikusgarria ere bada eta jendeari gustatuko zaio. Orain, Eskoriatzako taldean ari gara parte hartzen, han zaletasun handiagoa dago, eta ea zerbait antolatzen den.

Aretxabaletan non egingo zenuke?

Arkarazon, esate baterako, bada zelai egoki bat.

Non entrenatzen zara?

Baserri inguruan, Mendiolan.

Zelako gidaria zara?

Nahiko urduria naiz gidatzerakoan.



ANDONI ARENAZA

ESKUPILOTA TXAPELKETA

Lagun arteko eskupilota txapelketarako izenematea luzatu egin dute

Izena jende gutxi eman duela eta, luzatu egin dute lagun arteko eskupilota txapelketan parte hartzeko aukera. Urriaren 8an hasiko da txapelketa, eta lehenbailehen egin behar da izenematea kirol etxean. Lau t'erdiko txapelketa izango da eta abenduaren 11n bukatuko da. Kategoria bi izango dira. Partiduak kirol etxean jokatu dira.

LANGILEA AUKERATZEKO PROBAK HASTERA DOAZ

Kirol instalazioen mantentze-lanetarako lagun bat kontratatuko du Udalak

Hemendik aurrera Udaleko langilea izango da kirol etxeko mantentze-lanez eta harreraz arduratuko den laguna. Prozesua irekita dago, eta hiru lagun aurkeztu dira lehiaketara. Orain, berriz, pertsona hori kontratatzeko probak hasiko dira. Kirol teknika-riaz gain, harrerako laguna ere Udaleko langile izango da. Hainbat proba egin ondoren erabakiko da nor izango den arduraduna.

ETORKIZUNeko KIROL INSTALAZIOEN GAINEAN

Udalak bilera deitu du, kirol etxearen inguruan herritarren ekarpenak jasotzeko

Etorkizuneko kirol instalazioek zeintzuk izan behar duten eta kirol etxe aurrean dagoen zelaiarekin zer egin daitekeen zehazteko, Udalak bilera deitu du. Urriaren 6an, 18:30ean, izango da bilera udaltxean, eta edonor joan daiteke bertara. Udaleko Kirol Sailak ere dituen asmoen berri emango du bileran. Bestalde, kirol etxe aurrean dagoen zelaian zer egin daitekeen ere galdetuko zaie bilerara gerturatzen diren herritarrei.

FUTBOLA

Preferente mailako UDAk Tolosaren aurka jokatu du

Joan den asteko partiduan Anaitasunaren aurka bana berdindu ostean, aste bukaera honetan Tolosaren aurka neurtuko ditu indarrak preferente mailako UDAk. Gainontzean, aurreko jardunaldiari begiratuta, ohorezko ligan jokatzeko duen taldearen emaitza azpimarratu behar, 5-1 irabazi baitzion Arizmendi taldeari. Talde horrek Hondarribiaren aurka jokatu du aste bukaeran.

IRIARTE

Umeen
dendaHelduen
lentzeriaDurana 8
Tel.: 943 79 10 96
ARETXABALETABENGOA
URDAITEGIABertako okelak
eta mortzilakDurana 9. Aretxabaleta
Tel.: 943 79 19 79

PAGALDAI

Opari denda
LurrindegiaDurana 33 • Aretxabaleta
943 79 10 14ANDRA
MARI
Aholkularitza- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laboralaAndra Mari Auzunea 3
ARETXABALETA
Tel. 943 79 29 26

Aretz

taberna

"Oilaskoak eta
paellak eramateko"Markole 5
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETA

Arotz lanetan behar duzun guztia

AZKARATE
AROTZEGIATelleria 19, B-0-2 B-0-3. BERGARA
Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

ARDATZA

Brikolaketa

Masterreka 4, behea.
Tel.: 943 76 18 93
BERGARA

Esko Sport

Udazkenean kirol arropa geurean

Intxaurtxueta 5, ESKORIATZA. 943 71 52 96

LARUNBAT ARRATSALDEZ IREKITA

Lie

LURRINDEGIA
OPARI DENDAMitarte 18 • 943 79 38 59
ARETXABALETA

HURRETIK



**Geli
Dos Santos**

Dendaria

Las Palmasen jaio bazen ere, Galizian egin ditu urte gehien, duela 10 urte Aretxabaletara etorri zen arte. Duela gutxi, gaztetxoendako Ktibos izeneko zapata denda zabaldu du herrian. Galizieraz *umeak* esan nahi du *cativos* hitzak.

Zer dela eta gaztetxoendako zapata denda?

Aretxabaletan ez dagoelako halakorik. Beharra zegoen. **Gaztetxoak zapatak erostera etortzen direnean, aukeraketa gurasoek edo haiak egiten dute?**

Hori amaren arabera izaten da, baina gehienetan gazteak aukeratzen du. 6-7 urte baino gehiago dutenek eurek aukeratzen dute. Hortik beherakoei normalean amak.

Zein kolore dute gustuko umeek?

Neskatilik arrosa, eta mutikoei berdin zaie baina kolore ilunak.

Zuretako zein zapata duzu gustuko?

Botak edo botinak, negukoak eta takoirik ez dutenak.

Zein da dendan duzun zapatarik handiena?

40 zenbakia. Gaur egun gaztetxo askok du 40 zenbakia. 12-13 urtekoek zenbaki hori erabiltzen dute.

Denda kanpoan erlojua eta termometroa jarri dituzu.

Jendeari dendak atentzioa emateko jarri dut. Horrelako gauzei asko begiratzen die jendeak.

Zeintzuk dira zure zaletasunak?

Oinez ibili eta mendira joatea. Itsasoa baino gehiago gustatzen zait mendia, baina orain ez dut astirik.

Zer falta zaio Aretxabaletari?

Gauza asko. Umeendako ekintzak, animazioa...

A zelako zalaparta Asiatik datozen zapatak direla eta.

Baina zapata horiek ba ote dute kalitaterik? Prestigiodun marka batenak badira bai, baina bestela ez pentsa.... Kalitatea ordaindu egin behar da.

Zenbat zapata pare duzu dendan?

Ziur ez dakit, baina mila baino gehiago.

Zapatak garbitzea gustuko duzu?

Bai, gustatzen zait. Askok ere gutxiago gustatzen zait kristalak garbitzea, ez zait batere gustatzen.

Noizbait izan zara dendari?

Ez, lehenengo aldia da orain.

Zer moduz orain arte?

Ondo, baina uste dut urrian gehiago salduko dudala.

MARIA AGIRRE

NIREBIDAIAHURA/ Itxaro Zubillaga

Mexiko / 2003ko uztaila

Iaz egin zuen Mexikora bidaia Itxarok. Familiar-tekoak ditu bertan, eta mexikarrak Aretxabaletara etorri izan diren moduan, Zubillagatarrak ere joan izan dira Mexikora. "Gure amama Esperantza Altuberen anaia, Alejandro Altube, Mexikora joan eta bertan ezkondu zen. Lau seme-alaba izan zituzten, eta eurekin harremana dugu. Iaz uztailan oporrak nituela eta, familiar-tekoak bisitatu eta Mexiko ezagutzera joatea erabaki nuen". Hala ere, Itxarorentzat ez da Mexikora joan den lehenengo aldia izan. "Gaztetxoa nintzela guraso eta anaiarekin joan nintzen Mexikora, orduan ere familiar-tekoengana. Baina hamahiru urte nituen orduan, eta Mexikon ikusitakoak nahiko ahaztuta nuen. Berritxo joan nahi nuen".

Bilbon hegazkina hartu, eta Mexikoko hiriburura iritsi zen Itxaro, baina segituan autobusa hartu eta Queretaro hirira joan zen. Familiar-tekoak han bizi direnez, eurak bisitatzea joan zen lehendabizi. "Queretaro barrualdean dago, hiri koloniala da, Toledoren antz handia du. Kale txikiak eta oso politak ditu, hala ere hiri handia da. Gainera, bainuetxeak ere baditu inguruan, eta horietako batera joan nintzen. Bestalde, Queretaron prestatu nuen Mexikon egingo nuen bidaia.



"Urpean sartzen bazara arrain zoragarriak ikus ditzakezu, koloredunak"

"Nire familiar-teko batzuk betidanik Mexikon bizi direnez, bertara joatea erabaki nuen"

Horrela, Karibe aldera abiatu nintzen, Cancunera, Playa del Carmen deitzen den herri batera. Cancun eta baita Playa del Carmen ere oso toki turistikoak dira, baina oso politak. Hotelez beteta daude, baina merezi du inguru hori ezagutzeko. Gainera, urpekaritza egiteko aukera izan nuen. Hemen egin izan dut urpekaritza, baina Karibearen egitea beste gauza bat da. Urpean sartu barik ere arrainak ikusten dituzu, baina behin urpean sartuta arrain zoragarriak ikus ditzakezu, koloredunak". Eta Karibeko inguru hori ezagutu ondoren, pazifikora egin zuen Itxarok. "Puerto Angel eta Puerto Escondido herriak bisitatu nituen. Azken hori izugarri gustatu zitzaidan, surf giroa zegoen-eta. Oso jende jatorra, hippy mordoak... Zoragarri pasatu nuen. Gainera, hondartzan egin nuen lo, lastoz egingo txabola batzuetan. Etxola horietan lo egitea oso tipikoa da bertan".

Baina familiar-tekoak ezin ahaztu, eta berritxo haiengana joan zen, oraingo honetan Leon izeneko hirira. "Hiri industrialia da, eta bertan larruzko gauzak erostea ohikoa izaten da". Hala ere, Mexikon hain ezagunak diren kapelak erosi zituen etxekoendako.

ARETXAGAZETA



Tulum-en ere izan zen Itxaro. Arkeologi aldetik oso aberatsa da.

Maritxu
drogeria
mertzeria

Araba Ibilbidea 24
Tel.: 943 79 23 53
ARETXABALETAKA



MAPFRE
Aseguroak

Errekabarren 3
Aretxabaleta
Tel.: 943 77 11 76

Jauregi
Okindegia

Otalora 10
Tel.: 943 79 57 47
ARETXABALETAKA

Iber

★ Loteria ★
✿ Paper denda ✿
✱ Liburuak ✱

Otalora 2.
ARETXABALETAKA
Tel.: 943 79 04 39

JAUSORO OSTATUA



Durana kalea 18 1.ESK
ARETXABALETAKA

Tel.: 943 79 89 69
Sakelakoa: 656 74 81 61

Ze barri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2004ko urriaren 1a / 180. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Zuriñe Velez de Mendizabal • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxe: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

Eskoriatzako Biblioteka, Euskadiko Liburutegi Sistema Nazionalean

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Eskoriatzako biblioteka Euskadiko Liburutegi Sistema Nazionalaren barruan sartu da. Hori dela eta, zenbait lan ari dira egiten. Horiek amaitu bitartean ez da mailegu zerbitzurik izango. Hala ere, datorren asterako dena amaituta egotea espero dute.

Eskoriatzako Udal Biblioteka Euskadiko Liburutegi Sistema Nazionalaren barruan sartu berri da. Hori dela eta, hainbat aldaketa izango dira. Lan garrantzitsuenetariko bat liburutegiko fondoa berretiketatzea da. Hasiak dira dagoeneko horretan.

Bibliotekako bezeroei eragingo die berriro liburuak etiketatzea. Izan ere, mailegu sistema eten egingo da lanak bukatu bitartean. Liburutegiko arduradunaren esanetan, "datorren asterako zerbitzua berriaz erabilgarri egotea espero dugu".

SISTEMA BATERATUA

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren barruan dago Euskadiko Liburutegi Sistema Nazionala. ELSNren helburua da EAEko liburutegiaren arteko maileguak koor-



Dokumentuen berretiketatzek lanak amaitu arte mailegu sistema etentzea dakar.

dinatzea eta kudeatzea. *On line* sistema erabiltzen du bere xedeak lortzeko. Hala, katalogazio bakarra egongo da sistemaren barruan dauden liburutegi guztientzako. Den-

bora eta baliabideak aurreztuko dira horrela, Jaurlaritzaren esanetan. Katalogazio komunaz gain, mailegu, zigor eta erreklamazioen gaineko politika ere berbera izan-

go da guztientzat. Aurten hasi dira proiektua aurrera eramaten eta datorren urtean EAEn sistema bakarra izatea aurreikusten du Eusko Jaurlaritzak.

Bibliotekako bezeroek txartel berria atera beharko dute zerbitzuak erabiltzeko

EAEko liburutegiek katalogazio bakarra izango dute; horrek denbora aurreztuko du

Sistema berria dela eta, Eskoriatzako liburutegiko fondoa berretiketatu egin behar dute



Kalean da Eskoriatzako zerbitzuen gida

Martitzenean aurkeztu zuten Mainer Otamendi Kultura batzordeburuak eta Javier Zugasti Gazteria arloko zinegotzi arduradunak Eskoriatzako zerbitzuen gida. Herri-tarrek eta orokorrean herrian bizimodua egiten dutenek bertan aurki dezaketaren berri ematen du. Bost arlotan dago banatuta, eta 40 ekintzaren berri eskaintzen du. Postontzietan banatuko dituzte; kiroldegian, unibertsitatean eta abarretan ere aurkitu ahal izango dute gida interesatuek. /Z.V.M.

LABUR

Gaztesareak sustatutako musika taldeen gida

Herriko musika taldeentzako deia egin du Gaztesareak. Izan ere, diskoetxeekin kontraturik ez duten Euskal Herriko talde gazteen gida egin gura dute. Hala, deialdi publikoa egin eta Eskoriatzara ere luzatu dute deia. Helburua da Durangoko azokarako talde guztien kontaktuak bilduko dituen liburu-kaleratzea. Interesatuek, www.musikagida.gaztesarea.net gunean informazio gehiago lor dezakete; edo gaztesarea@gaztesarea.net helbidearekin harremanetan jarri.

TELEFONO JAKINGARRIAK

ESKORIATZA	
Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK	
Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze-Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deiak	112

OHARRAK

ODOLA EMATEA

Datorren astelehenean, urriak 4, odol emaitzen txanda izango da Eskoriatzan. Odola emateko aukera izango dute, beraz, kultura etxean. Odola ateratzeko arratsaldean joan beharko dira bertara, 16:30etik 20:00etara hain zuzen ere.

CAPOEIRA IKASTAROA

Astelehenean hasiko da Capoeira ikastaroa. Astelehenean eta eguaztenetan izango dira eskolak, 17:00etatik 19:00etara. Informazio gehiagorako, 625 77 22 95 zenbakira deitu.

AXTOKIREN AGENDA

LANPOSTU DEIALDIA

Ludotekako laguntzaile izan gura dutenek curriculum bidali behar dute axtroki@topagunea.com helbidera hilaren 7a baino lehen. Lan ordutegia 17:00etatik 20:00etara izango da, asteleheneetik barikura.

IKASTEKO GOGOZ DAUDEN HELDUEI ZUZENDUTAKO ESKOLAK

Hamahiru pertsonako talde berria Helduen Heziketa Iraunkorrean

Z.V.M.

Hasi dira Helduen Heziketa Iraunkorreko eskolak ematen. Orain arte talde bakarra zegoen Eskoriatzan; aurren, bigarren talde bat osatu dute. Goizez hartzen dituzte eskolak, eta askotariko gaiak lantzen dituzte bertan. Arratsaldeko taldeak, berriz, alfabetatzea du helduru.

Helduen Heziketa Iraunkorrak ikasketak utzi dituztenei zuzendutako eskolak ematen ditu. Orain arte, Eskoriatzan talde bakarra zegoen, arratsaldekoa. Orain, baina, goizez arituko den beste talde bat egituratu dute.

Hamahiru pertsonako taldea 50 eta 60 urte bitarteko ikasleek osatzen dute, eta ikasteko gogoia dute ezaugarri nagusi.

Egunero elkartzen dira kultura etxeko areto batean, lehen liburutegia zegoen tokian, eta askotariko gaiak jorratzen dituzte bertan: euskara, matematika, informatika, gaztelania eta gizarte-zientziak, hain zuzen ere.

Euskara, gaztelania eta informatika dira ikasleek jasotzen dituzten eskoletako batzuk

LEHENENGO ETA HIRUGARREN FASEAK

Aurretik ingelesa ikasten zebilen eskoriatzar talde batek arlo gehiago ikasteko eskaera egin zuen. Ikasteko grina zuten horiek. Hala, 13 lagun joaten dira eguneroko eskolara. Hala ere, irakasleen esanetan, "denak ez dira eskola guztietara azaltzen, interesatzen zaienak bakarrik agertzen dira. Baina eskola guztietara joatea gomendatzen diegu guk", gaineratu dute eskoriatzarren irakasleek. Hirugarren fasean daude talde berriko kideak; hau da, gura izanez gero, titulua lor dezakete. "Gutxi dira horretara animatzen direnak; azterketak egitea zail ikusten dute-eta". Arratsaldean dabiltzanak lehen fasean



Ikasteko gogoia dutela argi utzi dute izena eman duten lagunek.

daude. Horiek bere garaian oztopoak izan zituzten ikasteko, eta alfabetatzeko aprobetxatzen dute orain euren aisialdia. Horrela, idazten eta irakurtzen ikasten dute

Helduen Heziketa Iraunkorrak eskaintzen duen zerbitzuan. Eta aurrerapausoekin pozik dagoela eman du aditzera arratsaldero elkartzen den ikasle taldeak.

San Migelak ospatuko dituzte Apotzagan

Z.V.M.


Bertso afaria izango da Apotzagan San Migeletarako antolatutako ekitaldi nagusia. Auzo Etxe elkartearen Lizaso eta Lujanbioren bertsoak entzunez momentu alaiak igarotzeko aukera izango dute. Domekan, berriz, umeei zuzendutako marrazki lehiaketa egingo dute.

Bihar eta etzi, Apotzagan San Migel jaiak ospatuko dituzte. Bertsolari doinuak izango dira nagusi bihar, zapatua. 12:30ean meza esanez hasiko dute ospakizuna. Eta gauean, bertso afaria egingo

dute Auzo Etxe elkartearen. Maialen Lujanbio eta Sebastian Lizaso arituko dira bertaratutakoak alaitzen.

Domekan, bestalde, 10:00etan kanpai jotzea egingo dute eta etxafuegoak botako dituzte. Horren ondoren, 10:30ean, umeen txanda izango da. Izan ere, eurentzat marrazki lehiaketa antolatuko dute; elizateko txokoak paperean marrazteko aukera. Parte-hartzaile guztientzat opariak egongo direla esan dute antolatzaileek.

Eta San Migelelari agur esateko, 12:30ean meza nagusia esango dute eta mezaren ondoren, luntxa egingo dute eliza kanpoan.



Bertso afariarekin zapatu gaua igaroko dute Apotzagara gerturatzen direnek.

Txalaparta taberna



Aranburuzabala 25
ESKORIATZA

ENRIKE MAZMELA BOLINAGA

HORTZ KLINIKA



Eduardo Gorosarri 3-1. esk.
Tel: 943 71 47 36
Eskoriatza



Gustora egoteko!

Intxaurtxueta 8
ESKORIATZA
943 71 40 63

JAR EZAZU
HEMEN
ZURE PUBLIZITATEA

Ze barri?

II. MENDI BIZIKLETA ZEHARKALDIA

Domekan mendi bizikletan ibiltzera jende ugari gerturatuko dela espero dute

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Domekan jokatu da Gatzagan bigarren mendi bizikleta zeharkaldia. 25 kilometro izango ditu, eta Gatzagan hasi eta amaituko da. Bestalde, txikientzako ibilbidea ere antolatu dute: Gatzagainen hasi, Landara joan eta abiapuntura itzuli beharko dute.


Dorleta txirrindulari elkarteak eta Gatzagako Udalak II. mendi bizikleta irteera antolatu dute. Domekan, urriak 3, izango da hitzordua.

Goizeko bederatzietan elkartuko dira parte-hartzaileak San Migel plazan; izena eman eta sei bat euro ordaindu beharko dute. Handik irtengo dira 10:00etan Dorletako santutegirantz. Jarraian, Olaun, Dominaga, Hiruerreketa eta Usoko Haitzera joango dira. Handik, parte-hartzaileak Landara jaitsiko dira, eta Gure Ametsarantz jarraituz, janari eta edari postua aurkituko dute bertan. Horren ondoren, Jarindora eta handik Marotora abiatuko dira; azkenik, Txarrantxategitik (trenbidetik) Gatzagara itzuliko dira.

Guztira 25 kilometro izango dituen ibilbidea da. Antolatzaileen esanetan, "parte-hartzaileek kontuan hartu behar dute ez dela txapelketa bat, ibilaldi bat baizik".

25 KILOMETROKO IBILALDIA

Iaz egin zen lehenengo aldiz mendi bizikleta ibilaldia Gatzagan. Orduan ez zuen eguraldi onik egin. "eta halere, 70 lagunek hartu zuten parte", gogorarazi dute antolatzaileek. "Aurten eguraldi hobea egitea espero dugu. Eta bizikleta atsegin duen pertsona oro gonbidatu gura dugu dome-



ARTXIBOA

laz ez zuen eguraldiak lagundu; hala ere, inguruko bazterrek ezagutzeko aukera eskaintzen du ibilaldiak.

kako ekitaldira", gaineratu dute. Gatzagako basoak eta mendiak ezagutzeko parada izango dute bizikleta gainera igotzen direnek. Nolako ibilbidea izango den definitzerakoan, "erdi mailako

zailtasuna du ibilaldiak; Usoko Haitza mendirako igoera izango da gogorrena", eman du aditzera Dorletako batzordeak.

Bestalde, gazteentzako beste ibilbide alternatibo bat osatu dute.

11:00ak aldera Gure Ametsa jate-txetik irten, Landaraino joan eta itzuli egin beharko dute. Bost urtetik gorako gaztetxoentzat antolatuta, gurasoekin egin beharko dute ibilaldia bizikletaz.

Gatzaga inguruko mendi eta basoak ezagutzeko aukera bikaina eskaintzen du ibilbideak

Gaztetxoentzako bigarren ibilaldi bat antolatu dute; gurasoek lagunduta joan beharko dute

Opariak egongo dira parte-hartzaile guztientzat; amaitzeko, luntxa Gatzagan

Kirola eginaz ondo pasatzeko aukera sortu eta Gatzaga inguruak ezagutaraztea dira antolatzaileen helburu nagusiak. Horregatik, opari bana emango zaie parte-hartzaileei, eta beste erregalu batzuk zozketatu egingo dituzte: urdaiazpikoak, Jakion produktuak, gazta... Ibilaldia amaitzerakoan, luntxa egingo dute guztiek frontoian. "Giro polita egongo da, eta, beraz, jende guztia dago gonbidatuta".

Patinatzeko plataforma tokiz aldatuko dute

Z.V.M.


Kanpoko jende ugari joaten zen Gatzagara patinatzerara. Andramaijetan, baina, eszenatokia jartzeko, patinatzeko erabiltzen den plataforma kendu egin zuten. Udalak aditzera eman duenez, ez dute toki berean jartzeko asmorik. Ez dute toki berria zein izango den erabaki.

Andramaijetan kendu zuen Gatzagako Udalak ordura arte herriko plazan egon den U itxurako patinatzeko plataforma. Eszenatokia jartzeko tokia behar zutelako kendu zuten bere toki-

tik. Ez dute plataforma berriz ere plazan jarriko. Izan ere, Jon Sasiain Kultura zinegotziak aditzera eman duenez, hainbat kexa jaso dute udaletxean.

"Patinatzeko plataforma inguruan zikinkeria pilatzen zen, eta kexa gehienak horren ingurukoak izan dira", azaldu du Sasiainek. Ohikoa zen ogitartekoak, paperak... bertan aurkitzea. Zarata kontua ere konpondu gura du Gatzagako Udalak.

Hala ere, beste toki baten bila dabilzala adierazi du Jonek. "Ez dugu patinatzeko aukera kendu gura; herriko plaza baino toki aproposago baten bila gabiltza".



Zikinkeria eta zarata kontuak konpondu gura izan dute erabakiarekin.

ARTXIBOA


SAN MIGELAK 2004 GOITB-N

San Migelak, iruditan

Urriaren 5ean, martitzena
20:30ean, saio berezia



Ikustekoa!



KURTZEBARRI ESKOLA

Santa Kurtz 19 Aretxabaleta • Tel./ faxa: 943 790049 • e-maila: kurtzebarrieskola@euskalnet.net



**Aurten ere,
gurekin izan zaretenoi,
mila esker!!**

Kurtzebarri Eskolako ikasle eta irakasleak.

Aretxabaleta eta Eskoriatzako

Gremioen Gida



**ALTO DEBA
MARGOAK**

DEKORAZIO PINTURA
PINTURA INDUSTRIALA
FATXADAK

Tel.eta Faxe: 943 71 41 82 Poltsikokoa: 639 37 45 25




**J.SANCHEZ
ITURGINTZA**

- Bainurako gaiak
- Etxe barruko gas instalazioak
- Bainurako altzariak

Basabe poligonoa A - 2 - 10
ARETXABALETA
Tel.eta faxe: 943 79 69 32 Poltsikokoa: 689 58 79 12

Dintura eta dekorazioa



Gimbert
San Migel 13, behea C
ARETXABALETA
609 143 119



RADIO
ELECTRICIDAD
LEGAZPIA

"R.E.L.E."

Gotzon Beitia Lazkano

Denda:
Santa Ana 17, Eskoriatza
Tfnoa-Faxe: 943 71 41 65
Tailerra:
Santa Ana 12, Eskoriatza
Tfnoa-Faxe: 943 71 41 12

ESKORIATZA

**AITZORROTZ
elektronika**

- Telebista, audio eta bideo salmenta eta konponketa
- Instalazio elektrikoak
- Atezain automatikoak
- Antena kolektiboak
- Informatika

Aitzorrotz elektronika Tel.: 943 79 16 10
Otalora, 14 ARETXABALETA

Hnos. SAJERAS, C.B.



Margogintza
Dekorativo eta Industrial

San Pedro, 14 behea ESKORIATZA
Tel.-Faxe: 943 71 47 28
Arrasate Tel.: 943 77 16 66
Poltsikokoa: 608 92 11 18

FRIXI Eraikuntzak

Hormigoizko estrukturalak,
urbanizazio, kontratak
eta enpresen mantenimenduak

Aranburuzabala 56 ESKORIATZA
Tel. eta faxe: 943 71 55 15 Poltsikokoa: 629 51 39 22



Jon Axpe Oyanguren

**OYANGUREN
Iturgintza**

- Iturgintza
 - Gasak
 - Berogailuak
 - Peetrolio-produktuak
 - limatizazioa
- Aranburuzabala 15
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 47 14
606 007 369
f.oyanguren@ctv.es

L. GONZALEZ

PINTURAK

Pintura orokorra eta enpapelatua

Basabe poligonoa F-6
ARETXABALETA
686 113 581

ARETXARGI

Modesto ROMEO
Aretxargi@euskalnet.net

BELORRIETA 15, BEHEA 20550 ARETXABALETA - GIPUZKOA

943 532 628 645 734 032

INSTALAKUNTZA ELEKTRIKOAK



Instalazioen mantenimendu osoa
Berokuntza • Gasak
Aire girotua • Haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3. Aretxabaleta.
Tel.: 943 77 19 88. Faxe: 943 79 59 97



ALUMINIOA/P.V.C.a/POLIURETANOA
ALUMINIOA-EGURRA
PERTSIANAK ETA OSAGAIK



Araba ibilbidea, 17 eta 25
•Tel.: 943 79 28 41 •Fax: 943 79 79 06
•20550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)
•E-mail: kurtzebarri@euskalnet.net



Basabe poligonoa D-2-1
117 posta kutxa
ARETXABALETA
Telefonoa eta faxe:
943 79 78 45
Poltsikokoa:
616 96 57 98

- Barruko zein kanpoko lorezaintza.
- Ureztatze sistemak: automatikoki, eskuz eta tanta-jario bidez.
- Loreontzi-euskarriak, balkonerak, eta abar.

**ARETXABALETA
ITURGINTZA**

Durana, 16-Tel.: 79 17 53
ARETXABALETA

**J.J. ITURGINTZA
IRURE**

URA
GASA
KALEFAKZIOA

MITARTE 15
ARETXABALETA

943 793 187